


6 mantangorri



CO AZOKA LIBURUA

Izenburua: 'Gerrak ez du izenik'.**Testua:** Leire Bilbao. **Marrazkiak:** MaiteMutuberria. **Orrialde kopurua:** 40 orrialde, koloretan. **Argitaletxea:** Pamiela.**Leire Bilbao**

IDAZLEA

«Memoria historiko pixka bat egiteko ere balio du istorioak»

Amama hil eta aita frontera joan zenetik, ez du hitzik egiten Mirentxuk. Mutu pasatzen du eguna, bere pentsamenduetan bidaian. Izenak izana daka-rela esaten zion amamak; hobe, beraz, tristuraren edo saminaren aipamenik ez egin.

1937ko martxoan kokatzen da ipuina, Durangon. Espainiako gerra-en garaian. Gerrak dakarren suntsiketa, tristura eta samina modu berezian kontatu dituzte Bilbaok eta Mutuberriak. Hitzak eta irudiak modu egokian uztartzen asmatu dute, eta, horregatik, 2013ko Etxepare saria eman diote liburuari. Nafarroako hainbat udalek eta Mankomunitateko Euskara Zerbitzuek antolatzen dute saria.

Inoiz baino lan gehiago aurkeztu dira Etxepare sarira: 31. Zuentzat izan da saria. Pozik?

Maitek eta biok batera lan egiten genuen lehen aldia zen, eta poza-rren hartu genuen erabakia, gustura lan egin genuelako elkarrekin eta oso gustura geratu ginelako emaitzarekin.

Elkar ulertu duzue, beraz?

Bai, oso ondo ulertu dugu elkar. Bera Madrilen dago, eta ni Euskal Herrian. Beraz, telefonoz eta posta elektronikoz aritu gara lanean. Une oro harremanetan egin gara: bat-tek ideia bota, besteak irudikatu... Liburua elkarrekin osatu dugu.

Zein istorio kontatu duzue?

1937ko martxoan kokatzen da istorioa. Berez, Durangon gertatzen da istorioa, baina izan zitekeen Gernika, Otxandio edo gerrak suntsitutako edozein herri.

Mirentxu neskatalaren istorioa kontatzen da. Amona hil eta aita frontera joan zitzaionetik, amare-

kin bakarrik geratu da, eta ez du hitz egin nahi haurrek. Oroitzen da amonak esaten ziola tristura ez balu izendatuko ez litzatekeela triste egongo; eta gosea ez balu izendatuko ez litzatekeela gose izango. Horregatik, mutu dago Mirentxu.

Mutu egon arren, gauza asko sentitzen ditu?

Bai, nahiz eta mutu egon eta nahiz eta paisaia grisa eta gordina izan, Mirentxuk oso barne mundu alaia eta bizia du. Azken batean, ume bat da. Eta, beraz, nahiz eta gerran egon, etengabe ate bat zabalik du alaitasunari eta itxaropenari.

Ideia hori marrazkietan ere islatzen da: oro har, ilunak dira marrazkiak, baina badira izpi koloretsuak.

Hori da. Xehetasun koloretsu horiek Mirentxuren barne mundua adierazten dute. Paisaia grisa, gor-

dina eta hotza da, baina berak in-gurua alaitzen du bere barne munduko kolore horiekin.

Zergatik aukeratu zenuen gai hori libururako?

Telebista piztu, eta gerra bat baino gehiago dagoela ikusten dute haurrek. Ipuina aitzakia polita iruditzen zitzaidan gaztetxoekin gerra-ren gaia lantzeko. Memoria historiko pixka bat egiteko ere balio du istorioak. Gerrak ez direla urruneko kontuak bakarrik, hemen ere izan zela gerra bat gure aitonamona edo birraitona-birramonek jasan zutena, eta horretaz ere bada zer esan eta zer hitz egin.

Gure historiako pasarte garrantzitsu batez hitz egiteko aitzakia ere bada.

Bai. Haurrek helduekin irakur dezakete liburua. Berez, Durangon kokatzen da istorioa, baina beste hainbat lekutan ere bizi izan zuten gerra. Arrasto gordina utzi zuen gertaera hark, eta ez da hainbeste hitz egiten. Gainera, gerra eta beste hainbat gai tabuak dira haur literaturan, eta ez da haietaz hitz egiten. Uste dut literaturaz baliatu behar dela gerra eta bestelako min batzuez ere hitz egiteko. Beraz, liburu hau abagune polita izan daiteke memoria pixka bat egin eta garai haietaz hitz egiteko.

Marrazkiak eta argazki errealkak nahasten dira.

Hori da. Durangoko Gerediaga Elkarteari eskatu genizkion herriko bonbardaketari buruzko argazkiak, eta haien gainean collageak eta ilustrazioak egin ditu Maitek: kolorre biziagoak sartu dizkie argazki ilun horiei, eta pertsonaia berria sortu du: Mirentxu... Argazki erreale haien gainean osatu dugu liburua.

Gustura emaitzarekin?

Oso pozik nago. Oso lan ederra egin du Maitek. Testua nahiko poetikoa da. Zer ikusten nuen esan nion, eta neskatzaren barne mundu hori idatzi ordez berak islatze-ko eskatu nion. Ederki egin du. Album batean garrantzitsua da ahalik eta hitz gutxiengos ahalik eta gehien adieraztea; ahalik eta istorio zabalena osatzea, irakurleak pentsa dezan istorio labur horren atzean badela istorio luzeago bat.